

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA OLABERRIAKO UDALAREN
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, DOKUMENTUEN
ERREGISTROETAN ESKABIDEAK, IDATZIAK ETA JAKINARAZPENAK
AURKEZTEARI BURUZ.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE
GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA, RELATIVO A LA
PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES, ESCRITOS Y COMUNICACIONES
EN SUS REGISTROS DE DOCUMENTOS.**

UDALA

XKK178

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA OLABERRIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA, DOKUMENTUEN ERREGISTROETAN ESKABIDEAK, IDATZIAK ETA
JAKINARAZPENAK AURKEZTEARI BURUZ.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUN-
TAMIENTO DE OLABERRIA, RELATIVO A LA PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES, ESCRITOS, Y
COMUNICACIONES EN SUS REGISTROS DE DOCUMENTOS.**

Donostian, 1997ko otsailaren 4an .

En Donostia-San Sebastián, a 4 de febrero de 1997.

BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik,

De una parte,

Joaquín Villa Martínez jauna.

Don Joaquín Villa Martínez.

Beste alde batetik,

De otra,

Agustín Agirre Urteaga jauna.

Don Agustín Agirre Urteaga.

DIHARDUTE

ACTÚAN

Lehenengoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehendakariitzako foru diputatu gisa, dituen eskumenak erabiliz eta Diputatuen Kontseiluak 1996ko irailaren 10eko erabakiaren bidez hitzarmen hau sinatzeko emandako baimenaren arabera.

El primero como Diputado Foral de Presidencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud de las competencias que tiene atribuidas y de la autorización para la formalización del presente Convenio aprobada mediante Acuerdo del Consejo de Diputados en sesión de 10 de setiembre de 1996.

Bigarrenak Olaberriako Udaleko alkate gisa, indarrean dagoen legeriak emandako eskumenak erabiliz eta Udaleko batzarrak 1996ko urriaren 24ko erabakiaren bidez hitzarmen hau sinatzeko emandako erabakiaren arabera.

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun osoa onartzen diote elkarri eta, hortaz,

ADIERAZTEN DUTE

Herritarrengana hurbiltzeko neurri egokia izan dadin Herri Zerbitzuen kudeaketari dagozkion eskumenak deszentralizatu eta deskonzentratu egin dira eta horren ondorioz Herri Erakundeetako egitura administratiboa eta gobernu gero eta korapilotsuagoak dira. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da elkarlan eta laguntza aktiboan oinarrituz Herri Administrazioen arteko harremanak arintzea, herritarrek egin beharreko izapideak errazteko xedez.

Indarrean dagoen legediaren arabera, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauei eta Administrazio Ihardunbideari buruzkoak, 38.4 artikuluan ezartzen duenez, herritarrek Herri Administrazioei zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak ondoko lekuetan aurkez ditzakete: zuzentzen diren organoei dagokien erregistroan; Estatuko edo Autonomi Elkartetako Administrazioeko edozein organotan; Postetxetan, araudiak agintzen duen eran, eta baita ere estatu espainiarrak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo kontsuletxeetan. Halaber aurriztatu du Udal Administrazioa osatzen duten erakundeetan aurkezteko aukera, baina modu hori eraginkorra izateko hitzarmena sinatu behar dutela adierazten du.

Beraz, aipatu hitzarmen hori sinatu bitartean ezin daitezke aurkeztu Udal Administrazioetako erakundeetan beste administrazio batzuei zuzendutako idatziak, nahiz eta haiek izan herritarrengandik hurbilen daudenak. Horren ondorioz, maiz gertatzen da, batez ere herri txikienetan, bertako biztanleek edozein izapide egin ahal izateko herritik kanpo jo behar dutela.

El segundo como Alcalde del Ayuntamiento de Olaberria, en virtud de las competencias que tiene atribuidas por la normativa vigente y de la autorización para la formalización del presente Convenio aprobada mediante Acuerdo del Pleno del Ayuntamiento en sesión de 24 de octubre de 1996.

Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad legal para el otorgamiento del presente convenio y en consecuencia

EXPONEN

Que la descentralización y desconcentración de competencias en la gestión de los Servicios Públicos como medida eficaz para un acercamiento a los ciudadanos supone una creciente complejidad de la estructuración administrativa y de gobierno de las Instituciones Públicas que conlleva al mismo tiempo la necesidad de propiciar una fluida relación entre las Administraciones Públicas basada en el principio de cooperación y asistencia activa, que simplifique a los ciudadanos la realización de trámites ante las mismas.

Que, conforme a la normativa vigente, según se desprende del artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común, los ciudadanos pueden presentar sus solicitudes, escritos y comunicaciones dirigidos a las Administraciones Públicas en el registro de los órganos a los que se dirijan; en el registro de cualquier órgano de la Administración del Estado o de las Comunidades Autónomas; en las oficinas de Correos, en forma reglamentaria, así como en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares del estado español en el extranjero. Se prevé asimismo que podrán presentarse en las entidades que integran la Administración Local si éstas suscriben un convenio a tal efecto.

Que, en consecuencia, y en tanto no se suscriba el referido convenio, no cabe la presentación de escritos dirigidos a otras administraciones en registros de entidades de la Administración Local, a pesar de ser éstas las más cercanas a los ciudadanos. Ello conlleva, especialmente en los municipios más pequeños, que sus habitantes deban en muchos casos desplazarse para poder realizar tales trámites.

Administrazio sinatzaileek goian aipatutako hitzarmena sinatzea elkarren arteko lankidetzaren eraginkortzat jotzen da, herritarrek egin beharreko izapideak erraztu eta hurbiltzen baititu eta administrazio horiei zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak beren organoei dagokien edozein erregistrotan nahiz hauei atxikita dauden edo haien mendekoak diren ente publikoetan aurkez baititzakete.

Lankidetzaren modu berri hori, 30/1992 Legeko 38.4.b) artikuluan oinarritutakoa, aurrerapauso garbia da. Administrazio sinatzaileek herritarrek administrazioa hurbiltzeko bidean, izan ere aurrerantzean beste komunikazio bide bat irekiko baitaie administrazioen egoitzetara joan beharrik gabe edo legeak aurrikusten dituen gainerako bitartekoak -askotan nekezak direnak- erabili beharrik gabe.

Hitzarmen hau sinatzen dutenen asmoa da zerbitzu publikoak herritarrengana hurbiltzeko lankidetzaren modu berriak aztertzea, elkarlana erregistroetan idatziak jasotze hutsa izan ez dadin, baizik eta, Administrazio bakoitzak ahal duen neurrian, herritarren esku jar dezan Foru Aldundiaren eta Udalen iharduerei buruzko informazioa eta, batez ere, organo eskudunera joan beharrik gabe egin ditzaketen izapideei buruzkoa.

Lankidetzaren hori azkartu eta eraginkortu egingo dela administrazioen artean -eta baita administrazioak eta herritarren artean ere, hauek baitira azken finean iharduera publikoaren onuradun eta hartzaileak- informazioa igortzeko bitarteko informatikoak, elektronikoak eta telematikoak ezartzen diren heinean. Horretarako, Lehendakariaren Departamentuak teknika horiek arian-arian ezartzeko elkarlana bultzatuko du.

Aurreko guztiarekin ados daudela eta, beraz, lankidetzaren hitzarmena sinatzen dutela ondorengo klausulen arabera

Que se entiende como instrumento de cooperación efectiva y eficaz entre las Administraciones firmantes, que simplifica y aproxima la realización de trámites a los ciudadanos, posibilitar que éstos puedan presentar sus solicitudes, escritos y comunicaciones dirigidos a ellas en cualquiera de los registros de sus órganos, así como de los entes públicos dependientes o vinculados a las mismas.

Que ésta fórmula de cooperación, realizada al amparo de lo previsto en el artículo 38.4.b) de la Ley 30/1992, supone un evidente avance en la cooperación entre las Administraciones firmantes al añadirse un nuevo cauce de comunicación con los ciudadanos sin obligarles a desplazarse a la sede de las Administraciones o a utilizar alguno de los restantes medios, en ocasiones dificultosos.

Que es intención de quienes suscriben el presente Convenio explorar nuevas fórmulas de cooperación para facilitar el acercamiento de los servicios públicos a los ciudadanos, de manera que su colaboración no se quede en la mera recepción de escritos en los Registros, sino que, en la medida de las posibilidades de cada Administración, se llegue a facilitar a los ciudadanos información sobre las actividades que llevan a cabo una y otra Administraciones - Diputación Foral y Ayuntamiento- y sobre los trámites que pueden realizar sin necesidad de desplazarse a la sede del órgano competente.

Que ésta cooperación se realizará de forma más efectiva e inmediata en la medida en que se incorporen medios informáticos, electrónicos y telemáticos para la transmisión de información entre las Administraciones y de ellas a los ciudadanos, últimos beneficiarios y destinatarios de la actividad pública. A tal efecto se desarrollarán los medios tendentes a una progresiva implantación de tales técnicas.

Que estando de acuerdo en cuanto antecede, proceden a suscribir el presente convenio de colaboración con sujeción a las siguientes

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Lankidetzaren hitzarmen honen xedea zera da: herritarrek hitzarmen hau sinatzen duten administrazioetako organoei nahiz hauei atxikita adauden edo haien mendekoak diren eta nortasun juridiko propioa duten Herri Zuzenbideko erakundeei zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak sinatzaileen edozein erregistrotan aurkezteko baimena ematea.

Bigarren.- Aurkezpenaren eraginak.

Herritarrek aipatu erregistroetan aurkeztutako eskaera, idatzi eta jakinarazpenen datek balio osoa izango dute administrazio sinatzaileetako edozein organoren nahiz hauei atxikita adauden edo haien mendekoak diren eta nortasun juridiko propioa duten Herri Zuzenbideko erakundeen aurrean interesatuek bete beharreko epeetarako.

Nolanahi ere, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Ihardunbidearen Legeko 48.4 artikulua aurreikusitakoaren arabera, prozedura bat hasteko epeak eskaera organo eskuduneko edozein erregistrotan sartzen den egunetik hasiko dira.

Hirugarren.- Erregistratu eta izortzeko izapideak.

1. Hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek lehenengo klausulan adierazitako idatziak onartu eta behar bezala izapidatu beharko dituzte, dokumentuen erregistroei buruzko arauen arabera eta, zehazki, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Ihardunbidearen Legeko 38. artikulua dioenaren arabera.

2. Dokumentuak, erregistratu ondoren, berehala igorriko zaizkie, hartu eta hurrengo laneguneari baranduen ere, destinatariari. Horretarako, bitarteko egokienak erabiliko dira, ahalik eta azkarren iritsi daitezen eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen berme eta eskakizunak bete daitezen.

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto.

Es objeto del presente Convenio de Colaboración autorizar la presentación por parte de los ciudadanos de solicitudes, escritos y comunicaciones dirigidos a los órganos de las Administraciones signatarias en cualquiera de sus Registros de documentos, así como los dirigidos a las entidades de Derecho Público con personalidad jurídica propia, vinculadas o dependientes de las mismas.

Segunda.- Efectos de la presentación.

La fecha de presentación de solicitudes, escritos y comunicaciones por parte de los ciudadanos en los referidos Registros tendrá plena validez a los efectos de cumplimiento de plazos por los interesados ante cualquiera de los órganos de las Administraciones signantes, así como de las entidades de Derecho Público con personalidad jurídica propia, vinculadas o dependientes de las mismas.

No obstante, de conformidad con lo previsto en el art. 48,4 de la Ley del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los plazos para iniciar un procedimiento se contarán a partir del día de la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en cualquiera de los registros del órgano competente.

Tercera.- Trámite de registro y remisión.

1. Las administraciones signantes del presente Convenio deberán admitir los escritos referidos en la cláusula primera dándoles el trámite adecuado conforme a la normativa reguladora de los Registros de documentos y, en concreto conforme a lo previsto en el art. 38 de la Ley de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común.

2. La remisión de los documentos una vez registrados a sus destinatarios se efectuará sin dilación y en todo caso dentro del día hábil siguiente a su recepción. En caso de ser dicho día Sábado se remitirá el día hábil siguiente.

Dokumentuak bidaltzeko garaian bitarteko egokienak erabiliko dira, ahalik eta denbora laburrena lortu eta indarrean dagoen legediaren arabera berme eta eskakizunak betetzeko xedez.

Zentzu horretan, igortzeko bide informatiko, elektroniko eta telematikoak erabiltzea bultzatuko da, dokumentuak bidali direla ziurtatu eta egiaztatu bada.

3. Foru Aldundiko erregistroetan aurkezten diren baina udalei zuzenduak diren idatzi eta jakinarazpenak azken horietako Erregistro Orokorrera igorriko dira zuzenean. Udaletan aurkezten diren baina Foru Aldundiari zuzenduak direnak, bertako Erregistro Nagusira bidaliko dira. Bi Erregistro Nagusi horiek egingo dute idatziak beren hartzaileei bidaltzeko barne izapidea.

Hitzarmen honen eremuan dauden Zuzenbide Publikoko Erakundeei zuzendutako idatzi eta jakinarazpenak dagokien Erregistro Orokorrera igorriko dira.

Laugarren.- Erregistroei buruzko informazioa.

1. Administrazio sinatzaileek erregistro nagusi eta osagarri buruz eta jendaurreko egutegi eta ordutegi buruzko informazioa trukatu dute elkarren artean. Informazio hori urtero berrituko da, eta aldaketarik dagoen bakoitzean ere bai.

2. Era berean, beren erregistroko bulegoen eta hitzarmen honen edo besteren baten bidez hitzartutako bulegoen zerrenda argitaratu eta egunean mantendu beharko dute, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Ihardunbidearen Legeko 38.7 artikulua dioenaren arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzarmen honen berri emateko, beste administrazio batzuekin sinatzen dituen gainerakoekin bezalaxe, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu ditu iragarkiak, hamargarren klausulan adierazitakoaren arabera.

La remisión se efectuará por los medios más adecuados encaminados de una parte a obtener la mayor brevedad posible y de otra a asegurar las garantías y requisitos que exige la legislación vigente.

En este sentido, se promoverá la utilización de medios de remisión informáticos, electrónicos y telemáticos, siempre que quede asegurada la seguridad y autenticidad del envío de la documentación.

3. Los escritos y comunicaciones presentados en registros de la Diputación Foral dirigidos a los Ayuntamientos se remitirán directamente a su Registro General. Los presentados en el Ayuntamiento dirigidos a la Diputación, se remitirán al Registro Central de ésta. Los respectivos registros General y Central efectuarán el trámite interno de remisión a sus destinatarios.

Los escritos y comunicaciones dirigidos a las Entidades de Derecho Público incluidas en el ámbito de aplicación de este Convenio se remitirán a su correspondiente Registro General.

Cuarta.- Información sobre Registros.

1. Las administraciones signantes deberán facilitarse información relativa a los Registros generales y auxiliares de las mismas, así como de sus calendarios y horarios de atención al público. Dicha información deberá actualizarse anualmente y, en todo caso, cuando se produzcan modificaciones en la misma.

2. Deberán asimismo hacer pública y mantener actualizada una relación de las oficinas de registro propias, así como de las concertadas mediante éste u otros convenios, en los términos previstos en el artículo 38.7 de la Ley de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común.

A tal efecto, la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá a publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la prensa anuncio dando cuenta de la firma del presente convenio y de otros que, en su caso, suscriba con otras Administraciones, conforme lo indicado en la cláusula décima.

3. Halaber, administrazio sinatzaileen Erregistroetako agiriko lekuan administrazio sinatzaileen erregistro bulegoen zerrenda iragarriko da, hitzarmen honen Eranskinean azaltzen den ereduaren arabera.

Bostgarren.- Erregistroen koordinazioa

1. Administrazio sinatzaileek erregistroarteko komunikazioa eta koordinazio sistemak erabiltzea sustatuko dute, idazpenen bateragarritasun informatikoa eta igorpen telematikoa ahalbidetzeko.

2.- Aurreko pasartean adierazten diren erregistroarteko komunikazioa eta igorpen telematikoa erabiltzeko neurriak hartu bitartean, administrazio sinatzaileek beren erregistroetako idazpenen zerrenda laburra bidaliko du dokumentuekin batera. Zerrenda hori xedezko erregistrora ere igorriko da, telekopia bidez, dokumentuaren sarrera datatik hurrengo lanegunean, gehienez ere.

Seigarren.- Herritarrentzako informazioa.

1. Administrazio sinatzaileek konpromezua hartzen dute beren zeregin eta iharduerei buruzko informazioa elkarren artean trukatzeko, herritarrek eskumena duen administrazioa joan gabe egin ditzaketan izapideak errazteko xedez.

Hala, administrazio sinatzaileen Erregistro Orokor eta Nagusien esku jarriko dira eskabide normalizatuak eta jendeak eskaerak aurkeztu eta izapideak egiteko behar dituztela irizten diren inprimakiak, bereziki, deialdi irekiei buruzkoak eta administrazio sinatzaileek hasi dituzten eta hedapen zabala eman nahi dieten prozedurei dagozkien kanpainei buruzkoak.

2. Administrazioek konpromezua hartzen dute elkarren arteko lankidetzan arian-arian aregotzearren neurriak hartzeko, herritarrek egin beharreko era guztietako izapideetarako benetako hurbiltasuna lortzeko xedez. Bide horretan behar diren hitzarmenak sustatuko dira.

3. Asímismo se ubicará en lugar visible de los diferentes Registros de las Administraciones firmantes anuncio comprensivo de dicha relación de oficinas de registro, conforme al modelo que se incluye como Anexo de este Convenio.

Quinta.- Coordinación de Registros

1. Las Administraciones firmantes promoverán el establecimiento de sistemas de intercomunicación y coordinación de registros que garanticen su compatibilidad informática y la transmisión telemática de los asientos.

2. En tanto se arbitran los sistemas de intercomunicación y transmisión telemática aludidos en el párrafo anterior, las Administraciones signantes adjuntarán junto con cada remisión de documentos un extracto comprensivo de los correspondientes asientos inscritos en su propio Registro. Dicho extracto se remitirá asímismo por fax al registro destinatario dentro del día hábil siguiente a la entrada del documento en el Registro. En caso de ser dicho día Sábado se remitirá el día hábil siguiente.

Sexta.- Información a los ciudadanos.

1. Las Administraciones firmantes se comprometen a proporcionarse mutuamente información sobre las funciones y actividades de las mismas a fin de facilitar a los ciudadanos la realización de trámites para los que no sea necesario personarse en la Administración competente.

En este sentido, se pondrán a disposición de los Registros General y Central de las Administraciones signantes instancias normalizadas e impresos que se crean convenientes para facilitar la presentación de solicitudes y realización de trámites por los ciudadanos, en especial los relativos a Convocatorias públicas y Campañas correspondientes a procedimientos iniciados por las Administraciones signantes a los que se quiera dar la máxima difusión.

2. Las Administraciones se comprometen a favorecer las medidas tendentes a una progresiva colaboración entre las mismas al objeto de lograr un efectivo acercamiento a los ciudadanos en la realización de trámites de toda índole. A tal efecto se promoverán los oportunos convenios de colaboración.

Zazpigarrena.- informatizatzea

1. Administrazio sinatzaileek elkarri jakinaraziko diote beren erregistroak informatizatzeko hartzekoak diren edozein erabaki, bi sistemen arteko bateragarritasunari eragiten badio, eta konpromezua hartzen dute seigarren klasusulako 1. atalean aurreikusten dena benetan gauzatzearren behar diren hitzarmenak sinatzeko.

2. Zazpigarren klausulan aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromezua hartzen du Erregistroen antolaketa eta informatizazioari buruzko eta administrazioarteko informaziorako bitarteko telematikolari buruzko asistentzia teknikoa eta laguntza eskaintzeko.

Zortzigarren.- Salbuespenak.

Hitzarmen honen aplikazio eremutik kanpo geratzen da kontratazioko prozeduretako eskaintzen aurkezpena.

Bederatzigarren.- Iraupena.

Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita.

Automatikoki luzatuko da lau urteka, iraungipen data baino gutxienez hiru hilabete aurretik alderdietako batek hitzarmena espreski salatu ezean.

Elkarren artean ados jarrita ere iraungi daiteke; bai eta alderdietako batek bakarrik erabakita, beste alderdiak hitzarmenetik eratorritako eginbeharrak bete gabe larri uzten baditu.

Hamargarrena.- Publizitatea.

1. Hitzarmenaren sinadura eta iraungipena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu Foru Aldundiak.

Administrazio sinatzaileen Iragarki Tauletan ere argitaratuko dira.

Séptima.- Informatización de registros.

1. Las Administraciones intervinientes deberán comunicarse cualquier medida de informatización de sus Registros que pueda afectar a la compatibilidad de los sistemas y se comprometen a negociar y formalizar en su momento el correspondiente convenio que posibilite la efectividad material de lo previsto en el apartado 1 de la cláusula quinta.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a prestar asistencia técnica y colaboración sobre organización e informatización de Registros, así como sobre medios telemáticos de intercomunicación de información para facilitar los objetivos previstos en la cláusula sexta.

Octava.- Exclusiones.

Queda excluido del objeto de aplicación de este Convenio la presentación de plicas y ofertas en procedimientos de contratación.

Novena.- Vigencia.

El presente Convenio tendrá una vigencia de cuatro años contados desde el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Será prorrogado automáticamente a su vencimiento por periodos de cuatro años, salvo denuncia expresa de cualquiera de las partes efectuada con al menos tres meses de antelación a la fecha de extinción.

Podrá extinguirse por mutuo acuerdo, así como por decisión unilateral de alguna de las partes cuando se produzca por la otra un incumplimiento grave de las obligaciones dimanantes del Convenio.

Décima.- Publicidad.


1. Tanto el Convenio como la extinción del mismo se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa a instancia de la Diputación Foral.

Se publicarán asimismo en los Tablones de Anuncios de las Administraciones signantes.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsa idatzian argitaratuko ditu hitzarmena honi eta beste administrazio batzuekin sinatzen ditueni buruzko iragarkiak, Udal sinatzaileak ere egokitzen jotzen duen publizitatea egitea eragotzi gabe.

Aurreko horren guztiaren adostasun seinaletan eta hitzartutakoa jasota gera dadin, agiri hau sinatu dute, ale bikoiztuan eta ondorio bakarrerako, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
IZENEAN
EN REPRESENTACIÓN DE LA DIPUTACIÓN
FORAL DE GIPUZKOA**



Joaquín Villa Martínez.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa publicará también anuncios relativos a éste y a otros convenios suscritos con otras Administraciones en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la prensa escrita, sin perjuicio de la publicidad que el Ayuntamiento signatario estime procedente realizar.

En señal de conformidad y para la debida constancia de todo lo convenido, se firma éste Convenio de Colaboración en duplicado ejemplar y a un sólo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**OLABERRIAKO UDALAREN IZENEAN
EN REPRESENTACIÓN DEL AYUNTAMIENTO
DE OLABERRIA,**




Agustin Agirre Urteaga.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsa idatzian argitaratuko ditu hitzarmena honi eta beste administrazio batzuekin sinatzen ditueni buruzko iragarkiak, Udal sinatzaileak ere egokitzen jotzen duen publizitatea egitea eragotzi gabe.

Aurreko horren guztiaren adostasun seinalean eta hitzartutakoa jasota gera dadin, agiri hau sinatu dute, ale bikoiztuan eta ondorio bakarrerako, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
IZENEAN
EN REPRESENTACIÓN DE LA DIPUTACIÓN
FORAL DE GIPUZKOA**




Joaquín Villa Martínez.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa publicará también anuncios relativos a éste y a otros convenios suscritos con otras Administraciones en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la prensa escrita, sin perjuicio de la publicidad que el Ayuntamiento signatario estime procedente realizar.

En señal de conformidad y para la debida constancia de todo lo convenido, se firma éste Convenio de Colaboración en duplicado ejemplar y a un sólo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**OLABERRIAKO UDALAREN IZENEAN
EN REPRESENTACIÓN DEL AYUNTAMIENTO
DE OLABERRIA,**




Agustín Agirre Urteaga.



OLABERRIKO UDALA

(GIPUZKOA)




Idatzi honekin batera Alkateak sinatu bidaltzen du:

"Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Olaberriko Udalaren arteko lankidetzaz Hitzarmena, Dokumentuen erregistroetan eskabideak, idatziak eta jakin arazpenak aurkezteari buruzko" bidaltzen dizue.

Por medio de la presente enviamos firmado por el Alcalde " Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Olaberria, relativo a la presentación de solicitudes, escritos, y comunicaciones en los registros de documentos.

Olaberria, 1997ko otsailak

Adeitasunez / Atentamente:



ALKATEA

Idazkaria,
Fdo. Agustín Agirre Urizaga

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
LEHENDAKARITZA DEPARTAMENTUA
Lehendakaritzako Idazkaritza Teknikoa
Gipuzkoako Plaza z/g.

20004 DONOSTIA

